

LEGAZPI

BIDAIA BAT GURE INDUSTRIAREN ETORKIZUNERA



BURDIN HARANAREN BIHOTZEAN

Legazpiko herria aspaldiko mendeetatik dago estuki lotua burdinaren eraldaketari. XV. mendean, Legazpi zazpi burdinola zituen. Gaur egun, Mirandaolakoak dira. Elezahar batek dioenez, olagizonak hain langileak baitziren, ez zuten errespetatzen igandeko atsedena ere; horregatik da hain txikia ermitako gurutztea, Elizak emana.



Legazpiren existentziari buruz ezagutzen dugun aipurik zaharrena Antso IV.a Gaztelakoak egina da eta burdinarekin lotzen du herri hau:

"...tengo por bien que las ferrerías que son en Legazpia masuqueras, que están en yermo, e las hacen robos los malos homes e los robadores, que vengan más cerca de la villa de Segura..."



ANTSO IV.A GAZTELAKOAK

HERRI BAT BERE INDUSTRIAREN INGURUAN FORJATUA

1900 - 1980

1.246 BIZTANLE

10.588 BIZTANLE



Bere industria-garapenak erakarritako immigrazioaren eraginez, herria 1.246 biztanle izatetik 10.588 biztanle izatera igaro zen.

1908

Patricio Echeverría enpresa sortu zen, herriko hirigintza-antolamendua zor zaiona, hainbesteraio ezen garai hartako Udalaren zeregina ordeztu baitzuen, bere langileentzako etxebizitzak eraikiz, herriko auzo nagusiak sorrarazteraino.



PATRICIO ECHEVERRÍA ELORZA



"SEGURA, ETXEBERRIA Y CÍA", PATRICIO ETXEBERRIAREN ERNAMUINA.

Lehen Mundu Gerraren ondoren, jatorrizko enpresa desegin egin zen, baina bazkide bakarrik jarraitu zuen, Patricio Echeverría, alegia. Enpresa abiatu zenean, 12 langile zituen, baina 1931n 523 izatera igaro zen, eta 1961ean, berriz, 3.234; hala, altzairu berezien Gipuzkoako manufaktura-zentririk garrantzitsuenetako bat izatera iritsi zen.



1930 - 1960

Legazpiko hirigintzaren bilakaera eta berrantolaketa. Antolakuntza-konzeptu bat, zeinak sortzen baitu industria-paisaia paregabe bat, gaur egun oraindik ere harrigarria dena.



GI-2630. LEGAZPIKO SARRERA

KALE NAGUSIA

1936

1936: Espainiako Gerra Zibila. Legazpi konfiskatua eta militarizatua izan zen, gerrarako.



LANGILEEN BAZKARIA, URBASAN. 1939

1955

Immigrazioaren booma. Garai hartako enpresetan lan egiteko promesak erakarrita, leku guztietako pertsonak iristen hasi ziren: aldameneko landa-herrietakoak, nafarrak eta arabarrak, eta, geroago, León, Extremadura eta Burgoakoak.



1961

85% enpresan lan egiten zuen Legazpiko populazioa.



70-80KO URTEAK KRISIA

Industria siderometalurgikoa oso erasanda gertatu zen. Lanpostuak gaitzearen eraginez, udalerririk garapen endogenoa indartu behar izan zuen, egoera kritiko haren irtenbide bezala. Ahalegin horien ondorioz, denborarekin, Lenbur eta Artisau Forjako Lantegi Eskola sortu ziren.

1976

Eduardo Chillidaren "Haizearen Orrazia", aurrena Patricio Etxeberriaren fundazioan sortu zen, eta gero instalatu zen Donostian, itsasoaren aurrean, betiko. Ezagutzen dugun obra hori sail luze baten parte bat zen, zeina egileak burdinaren eta paperaren gainean egin baitzuen lantegi haietan lan eginez, fabrikako dozenaka langileren laguntzarekin.



1996

Artisau Forjako Eskola Lantegia sortu zen, Europako Gizarte Funtsak finantzatua, Patricio Echeverría Korporazioaren pabiloi batean abiatua.



1998

Lenbur Fundazioa sortu zen. Euskal industria-ondarea berreskuratzen lan egiten du, eta Legazpiko Burdinaren Museoaren sorrera sustatu zuen. Adin guztietarako planak antolatzen ditu, kultura-taldeak, enpresentzat, baita kirol aktiboak ere, eta espezialistak dira familia-planetan: Olentzero, Artzaitxo egunak eta abar.


2010

Chillida Lantokia sortu zen, non ikertzen den artistaren sorkuntzako industria-prozesua, eta Industrializazioaren Museoa izango denaren "lehen harria" da.



LEGAZPI, ENPRESA ETA ENPLEGU HERRIA

LEGAZPI: GAUR
258 ENPRESA - 4 SEKTORE



ITURRIA: UGASSA 2016

2.428 LANGILE



Iturriak: Legazpiko Udala, Lenbur Fundazioa, Ugassa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

